


MEMORIA

2015



Bergarako Udala
UDALTZAINGOA

Memoria honen bidez azaldu nahi da Bergarako Udaltzaingoak 2015ean burututako lanen laburpena. Bertan ikus ditzakezue ezagunak eta hain ezagunak ez diren eguneroko betebeharrak.

Herritarren gertuen lana egiten duen polizia izateak ingurua hobeto ezagutzeko aukera ematen digu eta horregatik arazo desberdin askotan parte hartzeko ahalbidea zabaltzen zaigu; askotan arazo “txikiak” izanda baina herritarrek “norbere arazoa” bezala barneratzen dituzten horietakoak.


Alde batetik ematen diren zerbitzuen aniztasuna eta beste aldetik langilegoaren kopuru murrizta kontutan harturik espezialidadeak garatzea ezinezkoa dela suertatzen zaigu.

Dena den herritarrei egunero zerbitzu on bat ematen saiatzen gara, eskura dauzkagun baliabideak erabiliz.

Beti bezala espero dugu eskaintzen dugun zerbitzua bere neurrian baloratuko duzuela.

Udaltzainburua

ORGANIGRAMA




***LANGILEGOA
ETA
FUNTZIONAMENDUA***




LANGILEGOA ETA FUNTZIONAMENDUA

Bergarako Udaltzaingoa ofizial-ondoko nagusi batek, udaltzain administrari batek, hiru agente lehengok, eta 13 agentek osatu dute 2015. urtean.



ADINEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adina	Zbk.	Portzent.
25-30	2	%10,52
30-35	3	% 15,78
36-40	6	%31,58
41-45	1	%5,26
46-50	0	% 0
50-55	3	% 15,78
55-60	4	%21,05




Adinen araberako sailkapenean multzo bi nabarmentzen dira: 30 eta 40 urteko bitartekoa (% 47,36), eta bestea 50 eta 60 urte bitartekoa (% 36,83).

Sexuaren arabera hiru emakume eta 16 gizon dira.

IKASKETEN ARABERAKO SAILKAPENA

-Unibertsitateko lizentziatuak:	5	% 265
-Ertaineko ikasketak:	13	% 68
-Oinarrizko ikasketak:	1	% 5




EUSKERA MAILA

-Dakitenak:	19	% 100
-------------	----	-------

Hizkuntz eskakizunak

Derrigortuak	19	% 100
Egiaztatuak	19	% 100

4. hizkuntz eskakizuna	2	% 10
3. hizkuntz eskakizuna	6	% 30
2. hizkuntz eskakizuna	11	% 60





LANERAGABEZIA

2015. urtean laneragabezia 1.968 ordukoa izan da, lan egin behar diren orduen %6,51 izanik, eta ondoan azaltzen den moduan banatuta:


BAJAK	BAIMENAK	GUZTIRA
1.432	536	1.968
% 72,76	% 27,23	%100

Lan egin beharreko orduak: **1.592 X 19 = 30.248**



Datu hauei buruzko azken 6 urteko gora beherak honako hauek izan dira:

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Galdutakoak	4.037	5.498	3232,5	1.960	2710,5	3.137	1.968
Bajak	1.501	2.456	2132	1.408	1982,5	2.539	1.432
Baimenak	944	1.450	345,5	552	728	598	536



Gaixotasunengatik hartutako baja gehien suertatu diren hilabeteak urtarrila (328 ordu \Rightarrow %22,9a), abendua (248 ordu \Rightarrow %17,32a), azaroa (200 ordu \Rightarrow %13,97a), eta otsaila (144 ordu \Rightarrow %10,05a) izan dira, hauen artean % 64,25a metatuz (920 ordu).

Bestalde, gutxien izan diren hilabeteak uztaila (8) eta ekaina (16) izan dira.

Baimena kontzeptuaren barruan senideen gaixoaldi larri edo heriotzagatik, norbere ezkontzagatik, semealaben jaiotzagatik, ikasketengatik (azterketak) edo ordaindu gabeko norbere zoizko baimenak sartzen dira.


Laneragabezia moduan bakarrik baja kontzeptuaren barruan jasotako orduak kontutan hartzen baditugu **2015ko laneragabeziko indizea % 4,73a** izan dela ateratzen zaigu, iazkoarekin alderatuta 3,66a gutxiago izanik.



APARTEKO ORDUAK

2015ean guztira 224 aparteko ordu egin dira, langilegoak bete behar dituen ordu guztien % 0,74a izanik. Ordu hauek ezusteko lanak betetzeko sartutakoak dira gehienak.


Sartu diren aparteko ordu guztiak dirutan ordaindu dira.



Azken 6 urteetan eginiko aparteko orduen kopurua azterturik ikus dezakegu orduen kopurua oso maila baxuan egon direla azken urte honetaraino, non ikusten da igoera bat.

Honen arrazoi nagusia, Udaltzaingoaren egutegi berrian aurkitu dezakegu, non urteko egun guztietan ematen dugun zerbitzua, egun guztiak lan egutegi barruan daudelarik. Hauteskundeko orduak berriz ezin dira aurrikusi egutegian data finkatu gabe dagoelako.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
61,5	58,5	160	118	53	33	224



EKIPAMENDUA

- **Irratiak:** 2 MOTOROLA GM350 basea.
3 MOTOROLA GM 350 mugikorra.
10 MOTOROLA GP340 eskukoak.


- **Ibilgailuak:** Opel Zafira 5469-GKS
Nissan Navara pick-up 2115-HVD
Nissan Grua 8900-CPK

- **Bestelako materiala:** 3 VAMA L-400 linterna.
4 VAMA L-500 linterna.
4 A-B-C-E hauts lehorreko 9 kiloko itzalgailu.
2 pala.
20 seinalizaziorako bastidore.
12 peto erreflaktario.
1 animaliak eramateko atoina.
1 PET mikrotxip irakurgailua.
20 pare grilete.
20 defensa teleskopiko eta 6 gogorrak Ares II.
20 ebakien aurkako eskularru.
20 eskuko linterna txiki.
20 multiherramienta
20 defentsarako spray.
1 AT 100 prismatikoak.
1 BRUEL & KJAER zarataneurgailua.
7 hesi txiki.
8 plastikozko hesiak.
2 hesi handi
2 ROLATAPE neurtzeko gurpila.
20 seinalizaziorako kono.
2 Olympus argazki kamara digitala.
3 PC.
Norberen materiala (uniformea...)
2 DRÄGER arnasa hartzeko ekipo autonomo.
4 ibilgailuak mugitzeko karroak (Foima)
1 katu hidraulikoa (2 Tm)
6 zepo ibilgailuak ibilgitzeko.
4 ebakien aurkako txaleko
2 CDP 8100 alkoholimetro
Txakurrak harrapatzeko lazoa
1 PHILIPS desfibriladorea.


FUNTZIONAMENDUA

2015. urtean, Udaltzaingoak eskainitako zerbitzua egunero 16 ordukoa izan da, astelehenetik igandera arte, gauez lanik ez duelarik egiten, herriko jaietan eta ospakizun berezietan izan ezik. Betetzen duen ordutegia da astelehenetik ostirala arte goizeko 06.00etatik gaueko 22.00ak arte, 06.00-14.00 eta 14.00-22.00 ordutegiak tartekatuz. Larunbatetan eta igandeetan ere 06.00etatik 22.00ak arte baina lantalde batek 12 eta 8 orduko txandak egiten: 06.00etatik 14.00ak arte eta 10.00etatik 22.00ak arte. Herriko jaietan eta ospakizun berezietan 24 orduko zerbitzuak ematen dira.

Txandak 5 udaltzain eta agente lehengo batez osaturik daude (talde batean 4 agente), eta egunean 8 orduko lan ihardunak betetzen dituzte, larunbatetan eta igandeetan 12 eta 8 ordukoak, komenioan ezarritako urteko 1.592 orduko lan-egutegia osatuz. Astebarruko atsedanak kontutan harturik teoriarik 4-5 udaltzain eta agente lehengo batekin osatzen dira asteko txandak.



TRAFIKO



EGUNEROKOAK

Puntu zehatz eta ordu jakin batzuetan emandako zerbitzuak dira egunerokoak, batez ere ikastetxe eta lantegietako sarrera eta irteera orduetan, eta leku jakin batzuetan ordu puntetan emandakoak.

Ikastetxetako sarrera eta irteera orduetan zaintzen diren puntuak honako hauek dira:

- Matxiategi-Boni Laskurain.
- Bidekurutzeta (Espoloia)
- Bidekurutzeta (R. M. Lili)
- Harrizuri.
- San Martin Agirre plaza.(sarreretan)
- Ibargarai 8 (irteeretan)

Lantegietako sarrera eta irteera orduetan zaintzen diren puntuak honako hauek dira:

- Ibargarai - Zurradero
- GI-627 eta GI-632 errepideen gurutzea (bariantea).

Zerbitzu bereziak ematen dira ezinduen garraioetarako egunero Basarte eta Zabalotegi kaleetan, pasabide estuak direlako eta mikrobusak arazoak izaten dituztelako.

KIROL FROGAK ETA BESTE BATZUK

2015ean herri barruko errepidetatik pasatzen diren kirol frogei ibilbidearen on iritzia eman zaie, guztira 32 izanik.

Urte honetan kirol frogarik eta ospakizunik garrantzitsuenak, herriko kaleetatik beren ibilbideak guztiz Udaltzaingoak zaindu dituenak hain zuzen, honako hauek izan dira:

- 2015-01-05 Erregeen kabalgata.
- 2015-02-21 Aratusteak
- 2015-03-23 Korrika
- 2015-03-28 Erramu Zapatuko Feria
- 2015-04-25 Labegaraietako saria
- 2015-06-13 Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa
- 2015-03-29 Gorlako igoera (txirrindulariak)
- 2015-05-10 Gorlako igoera (kotxeak)
- 2015-06-07 Antxintxika triatloi txikia
- 2015-05-22 Pentekoste saria
- 2015-06-07 San Antonio saria
- 2015-07-07 San Fermin (Xipizaro)
- 2015-09-15 Nagusien San Martineko danborrada
- 2015-09-16 Umeen San Martineko danborrada
- 2015-09-16 San Martin saria (txirrindulariak)




ISTRIPUAK

Herri barruko kaleetan izandako istripuak, Udaltzaingo honek istripu hauetan parte hartu duelarik, 2015ean guztira 60 izan dira, iazko datuekin konparaketa eginez %22,45a gehiago izanik. Hauetatik 50 istripu txostenak izan dira eta 10 epaitegietara zuzendutako atestatuak.


Aurreko urtean izandako istripuen kopuruarekin konparaketa eginez ikusten dugu aurten istripu gehiago izan direla, baina dena den azken urteotako kopuruak ikusita, esan behar da istripuen kopurua gutxi aldatzen dela urte batetik bestera. Honen arrazoia aztertzeko orduan, aipatu genezake abiadura murrizteko bandak eta oinezko pasabide altxatuak jarri direla herriko puntu askotan, eta honek ibilgailuen abiadura murriztea ekartzen duela.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
67	59	51	53	62	49	60




Izandako istripuetatik 20 ibilgailuen arteko topaketak izan dira, 32 beste gauza baten kontrako txokeak, 3 oinezkoen harrapaketa eta 5 beste arrazoietatik.

Istripu gehienetan kalte materialak besterik ez dira sortu (50), guztira 9 lagun zaurituak izan direlarik, denak arinak, azken hauek 9 istripuetan.



Istripuak suertatu diren urteko hilei dagokienez azaroa (9), apirila (8) eta maiatza (7) izan dira istripu gehien izandakoak, eta gutxienak abendua (0), otsaila (2) eta urtarrila (2) izan dira.

Urta.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia	Ekai.	Uzta.	Abuz	Irai.	Urria	Aza.	Aben
2	2	5	8	7	6	7	3	5	6	9	0



Asteke egunei dagokienez, istripu gehien izan diren egunak osteguna (13), asteazkena (11) eta asteartea (10) izan dira eta gutxien izan direnak larunbata (4) eta igandea (4) izan dira.

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
9	10	11	13	9	4	4

Istripuak zein kaletan suertatu diren begiratuta ikusten dugu istripu gehien izan diren kaleak honako hauek izan direla:


Amillaga	6
Ibargarai	5
Matxiategi	4

Konprobatu daitekeenez oso sakabanatuta daude, beraz ez da puntu beltzik somatzen aurreko urteetan izan zen bezala, Ibargarai kalean pilatzen baitziren istripu gehienak.

ISUNAK

Indarrean dagoen trafikoari buruzko arautegia hausteagatik 4.192 isun jarri dira, iazko datuekin konparatuta % 29,46a gutxiago izanik.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
2.077	3.693	7.221	7.074	4.686	5.427	4.192



Isun hauetatik 2.054 (% 49a) Bergarako biztanleei dagokie, gainontzeko 2.138 (% 51a) kanpoko gidariei dagokielarik.

Udaltzaingoak, jarritako isun guztiak tramitatzen ditu, guzti horrek 192.745 euro suposatzen dituelarik. Isun hauetatik, abenduaren 31n 2.972 (% 70,89a) ordainduta zeuden, 73.705 euro izanik eta 701 (% 16,72a) ordaindu gabe daude, 37.740 euro izanik.



BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK

2015. urtean, dagokion gestio administratiboa egin ondoren, bi kotxe erretiratu dira bide publikotik eta zatitegira eraman ditugu, eta beste 42 ibilgailu beraien jabeek erretiratu dituzte. Guztira 46 espediente hasi dira eta abenduaren 31n oraindik 2 espediente bukatzeko zeuden.



DATU INTERESGARRIAK

2015ko urtarrilaren hasieran Bergarako erroldan 9.663 ibilgailu inskribaturik zeuden, iazko datuekin konparatuta 260 gehiago izanik, eta horrela sailkatuta:

-Turismo:	7.995
-Kamioiak:	591
-Motozikletak:	701
-Ziklomotorrak:	190
-Atoinak:	206
-Autobusak:	20

Azken urte hauetako datuak kontutan harturik ikusten dugu ibilgailuen kopuruak mantentzen direla.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
9.438	9.471	9.577	9.516	9.518	9.403	9.663



Biztanleko 0,54 turismo eta 0,65 ibilgailu dagokigu, eta 1,85 biztanleko turismo bana eta 1,53 biztanleko ibilgailu bana.

TRAFIKO BURUZAGITZETIK BIDALITAKO ESKAERAK

- Prezinto aginduak: **6**
- Txosten eskaerak: **2**


OBRAK ETA HIRIGINTZA



OBRA BAIMENAK

2015ean guztira 284 obra baimen eman ziren, aurreko urtearekin konparatuta % 4,38a gutxiago izanik.

Bi obra baimen desberdin daude: obra handia eta obra txikiak, obra handiak proiektu baten beharra dutenak edo fatxadan aldaketak erakartzen dutenak izanik. Obra handiak egiteko 161 baimen eman ziren, eta obra txikiak egiteko, berriz, 123.



ZARATA NEURKETAK

2015ean ez zen inongo zarata neurketarik egin.

BESTE BATZUK



KALEZ KALEKO SALMENTA

2015. urtean ekintza hau kalean zehar burutzeagatik 2 akta jaso genituen, beraz, esan dezakegu saltzeko modu hori gure herrian desagertuz doala.

Bestalde Pentekoste, San Martzial eta San Martin Agirre jaietan kalean jartzen diren postuak ere kontrolatu eta kobratu egiten dira.

Merkatu txikia 2008. urtetik San Martin plazan kokatuta dago, eta bertan dauden 16 salmenta postuak kontrolatzen dira.

Oxirondoko azoka ere Udaltzaingoak kontrolatzen du: zabaldu, itxi, zamalanetarako ordutegia zaindu, libre dauden postuak kontrolatu, akatsak azaldu eta abar.

Askotan ekintza honekin nolabaiteko lotura daukan beste ekintza batzuk ere kontrolatzen saiatzen gara, hau da: eskaleak eta postulanteak. Azken hauei baimenik ez badaukate debekatu egiten zaie postulatzea, eta eskaleak herritik ateratzen saiatzen gara, nahiz eta kasu bietan lege aldetik ezin dela ezer egin.

LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

Gai honi dagokionez obretako 343 kontenedore, 573 obretako gaiez egindako lurzoru publikoaren okupazioak eta 1.355 aldarnio kontrolatu dira.

Aipatu behar dugu, 2015. urtean 39 egunetan kale mozketaren bat egin eta kontrolatu dugula.

Bestalde mahai eta aulkiez egiten den lurzoru publikoaren erabilpenari dagokionez 576 kontrol egin dira, hau da 48 tabernek egin dute mota honetako aprobeitxamendua urtean zehar eta hilerio kontrolatu izan dira. Kontrol hauen ondorioz 36 akta jaso dira baimenik gabe okupazioa egiteagatik edota baimendutako baino gehiago okupatzeagatik.

GALDUTAKO GAUZAK

Galdutako gauzen sailean, batutako balio gutxiko gauzez gain (giltzak...) guztira 90 gauza erregistratu dira, hauetatik 54 (% 60a) beren jabeen bueltatu zaizkielarik.

Bertan erreklamatu gabe geratzen diren gauzak aurkitu dutenei itzultzen zaizkie bi urteko epea pasatu ondoren edota onegintza erakundeetara bidaltzen ditugu, batez ere arropa, jostailuak eta betaurrekoak.

LOKALAK ZABALTZEA


- Zabalotegiko aretoa → aurretik eskatuta.
- Maria Lagundiako jolas tokia → egunero.
- Oxirondo azoka → egunero.
- Udaletxea → egunero.
- Agarre garaia → aurretik eskatuta.
- San Martin eskolako jolas tokia → egunero.
- Martinez de Irala ikastola → egunero.
- Ipintza institutua → egunero.
- Aroztegi aretoa → egunero.
- Zabalotegiko txiki-txokoa → egunero.
- Martokoko txiki-txokoa → egunero.
- Martokoko jubilatuen txokoa → egunero.
- Usondo parkea → egunero itxi.
- PESAko komunak → egunero.
- Iralako komunk → egunero.
- Irizar jauregiko atariko erakusketa → astebukaero.
- Mariaren lagundiko jolas tokia itxi → egunero.

KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK

2015ean, **39** txakur jaso dira, horietatik 17 Elurra txakurtegira eraman ditugu eta gainontzekoak beraien jabeei zuzenean itzuli dizkiegu. Jasotako guztien artean 22 bere jabeei itzuli zaie.

Azken hamalau urte hauetan Elurra izeneko txakurtegiarekin sinatutako hitzarmen baten bitartez lanean egon gara, eta kalean jasotako txakurrak Elurra txakurtegira eraman ditugu, honek emandako zerbitzua oso ona izanik.

1997an mikrotxip irakurgailua erosi genuen eta interneten bitartez REGIA erroldan kontsulta zuzenak egiteko aukera daukagu, bertan Euskadin erroldatuta dauden txakur guztiak azaltzen baitira. Guzti honek animalien jabeak topatzeko lanak asko errazten ditu.



Liztor beltza edo asiaticoari dagokionez guztira 81 aktuzio izan ditugu 2015ean, kabiak erretiratuz edota azken aukera bezala tirokatuz. Kabi primarioak Udaltzaingoak erretiratu ditu eta kabi haundiak Landa eta Garapenerako Bulegoak kontratatutako aditu batek kenduta gure laguntzaz. Bestalde tirokatu diren kabiak Udaltzaingoak egin ditu.

ERROLDA KONPROBAKETAK

Idazkaritzako teknikariak horrela eskatuta 2015ean 137 errolda konprobaketa egin dira, kasu bakoitzean zenbait aldiz etxera joanda eta bertan zeintzuk bizi diren ziurtatuta.




POLIZIA JUDIZIALA



Arlo honetan egiten den lanik garrantzitsuena prebentzioarena da. Horretarako polizia kalean ikustea da biderik egokiena, eta istiluak sor daitezkeen gunetatik aldizkako patruilak egitea.

2015ean guztira 80 salaketa jaso dira, aurreko urtearekin konparatuta % 7a gutxiago izanik. Guzti hauek epaitegietara zuzendu dira.

Bestalde 76 salaketa administratiboak jaso dira Udaleko sail desberdinetara zuzenduta. Beraz penalak eta administratiboak metatuta 156 salaketa jaso dira.



Salaketen zergatia kontutan harturik horrela sailkatzen dira:

-Kalteak:	32
-Ebazpenak (hurtos):	17
-Animaliak	11
-Agirien galerak:	7
-Lapurretak:	6
-Mehatsuak:	2
-Atxilotuak:	6

Era berean epaitegi desberdinetatik zuzendutako 30 eskaerari erantzuna eman zaie.

Dilijentzia hauek horrela sailkatzen dira:

-Agenteei zitazioak	10
-Partikularrei zuzendutako zitazioak:	4
-Etxetik jaurtiketak:	3
-Helbidea jainaraztea:	2
-Txostenak	2
- Beste batzuk	5

AURKIBIDEA

-Aurkezpena	2-
-Organigrama	3-
-Aurrekontuak	4-
-Langilegoa eta funtzionamendua	
-Ainen araberako sailkapena	6-
-Ikasketen araberako sailkapena	7-
-Euskera maila	7-
-Laneragabezia	8-
-Aparteko orduak	10-
-Ekipamendua	11-
-Funtzionamendua	12-
-Trafiko	
-Egunerokoak	14-
-Kirol frogak eta beste batzuk	15-
-Istripuak	16-
-Isunak	18-
-Bertan behera utzitako ibilgailuak	18-
-Datu interesgarriak	19-
-Obrak eta hirigintza	
-Obra baimenak	21-
-Zarata neurketak	21-
-Beste batzuk	
-Kalez kaleko salmenta	23-
-Lurzoru publikoaren okupazioa	23-
-Galdutako gauzak	23-
-Lokalak zabaltzea	24-
-Kalean utzitako animaliak	24-
-Polizia judiziala	26-